

XI RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

AZKEN ERABAKIA

XI Rikardo Arregi Kazetaritza saria epaitzeko Andoaingo Udalak izendaturiko Epaimahaiak -Jose Antonio Pérez, mahaiburua, Miren Azkarate, Allande Boutin, Anjel Lertxundi, Koldo Ordozgoiti, Iñaki Zabaleta, eta idazkari gisa eta, beraz, hizpidez baina hautespiderik gabe, Patxi Baztarrikak osatutakoak- ondorengo *azken erabakia* hartu eta ezagutzera ematea adostu du:

1.- Lehen hamarkada bete eta hamaikagarren urtera heldu da jadanik Rikardo Arregi Kazetaritza saria. Euskarazko kazetaritza bultzatzeko eta indarberritzeko sortu zuen, 1988an, Andoaingo Udalak saria. Harrezkero, urtero, hutsik egin gabe, eman izan dira sariok. Orduan, ordea, inork gutxik espero zezakeen sariak urteotan hain bide emankorra urratuko zuela. Izan hala gertatu da, baina: euskal kulturaren munduan oro har, eta bereziki euskal kazetarien artean, pisuzko erreferentzia izatera iritsi da Rikardo Arregi saria.

Hamaika urteko historia laburrean sari-atal ugari izan ditu bultzatzaile, eragile eta akuilu izateko sorturiko sari honek. Kazetaritzaren azpigenero askotara iristen saiatu da. Egokitzapenak eta aldaketak ere izan ditu, nola ez. Aldaketa nagusi bat aipatzekotan duela hiru urte, 1996an egindakoa aipatuko genuke: ordura arte prentsa idatzira mugatzen zen sariak ikus-entzunezkoen

mundura zabaldu zituen atea, irrati eta telebistako kazetaritza-lanak ere sariaren altzora biltzea erabakiz.

Bi dira sariak: bata, sari nagusia, eta bestea "kazetari berria" izenekoa. Sari nagusiari dagokionez, edozer izan zitekeen saridun: erreportaje bat, erreportaje-sail bat, sekzio bat, artikulua bat, irrati edo telebistetako programa bat edo erreportaje bat, kazetari bat edo kazetari talde bat.... "Kazetari berria" atalean, berriz, 25 urtez azpiko kazetari hasi berrien lanek dute saria lortzeko aukera; hori bai, kasu honetan ere, sari nagusian bezala, inolako genero mugarik gabe.

2.- Sariak eragile, bultzatzaile eta akuilu izatea du bokazio. Helburu nagusia, berriz, kalitatea eta eredugarritasuna bultzatzea, euskal kazetaritzarako ezezik, ingurukorako ere eredu diren lanak nabarmenaraziz eta kalitatezko erreferentzia bihurtzen lagunduz.

Hain zuzen ere helburu nagusi horien argitan eta oinarrietan zehaztutako irizpideei jarraiki egin du epaimahaiak lana eta hartu ditu erabakiak. Ez da erraza izan erabakiak hartzea, kalitatezko lanak gero eta ugariagoak baitira, zorionez, euskal kazetaritzaren munduan.

Nolakotasunaz gain zenbakiak ere aipagarri dira. Sari nagusiari dagokionez 134 izan dira aztergai, egileek berek aurkeztutakoak batzuk, epaimahaiak proposatutakoak bestetzuk. "Kazetari berria" atalean, berriz, 43 izan dira kazetari hasi berriek aurkeztutako lanak.

Gogora ekarri behar da, sari nagusirako, "kazetari berria" atalerako ez bezala, ez dela derrigorrezkoa lanak edo/eta proposamenak aurkeztea. Epaimahaiak bere gain hartzen du euskal kazetaritzaren esparruan urtebetean plazaratutakoaren jarraipena. Hala ere, lanak aurkez zitzaten dei berezia egin zitzaien kazetariei, eta erantzuna bikaina izan da. Epaimahaiak espresuki eskertzen du erantzuna.

3.- Honako hau da sariei buruzko erabakia, bi kasuetan epaimahaiak aho batez hartu duena:

* 3.1.- "*Kazetari berria*" ataleko saria, esan bezala Epaimahaiak aho batez erabakitakoa eta 400.000,- pezetaz hornitutakoa. Kazetaritzaren hastapenetan dabiltzanei zuzendutako saria da; generoaren eta komunikabideen aldetik ez du mugarik. Muga bakarra adinarena da, 25 urtez azpikoek bakarrik baitute sari hau lortzeko aukera. Beste ezeren aurretik, Epaimahaiak adierazi nahi du kazetaritzan hasi berriak direnen eta oraintxe hasten ari direnen lan bikain ugari aztertu duela, hasi berrienak baino gehiago eskarmentu handiko kazetarienak diruditen lanak alegia.

Artikulu-sorta bat da saritutako lana, eta saria erabakitzerakoan kontuan hartu dituen faktoreen artean honako hauek nabarmentzen ditu epaimahaiak:

- Ugaritasuna, nola gaiei dagokienez hala formari dagozkionetan ere. Izan ere, ikuspegi ugariatik jorratzen baita gai nagusia (Europako Batasunaren sorrera eta garapena), eta irakurketa erraztearen aldera artikuluak ezezik laburpenak eta elkarrizketak ere egin baitira.

- Erreportaje bikainak dira, ezbairik gabe, euroa bidean jartzeko egun gutxi falta zirela argitaraturiko hauek. Guztira zazpi lanez osaturiko artikulu-sorta da, eta esan behar da egitura periodistiko nabarmenaz moldatuak direla guztiak ere.
- Kazetariak hainbat arduradun politikori egindako elkarrizketen eskutik ikuspuntu europar ezberdinak bilduz aberastu du gaia: eraikuntza europarraren bidean izandako asmoak, helburuak, mugak, atzera eta aurrerapausoak aztertu ditu. Horri esker Europako batasunaren gorabehera korapilatsuak aise uler ditzake irakurleak.
- Aski katramilatsua den gaia izanik, bere mamia, ordea, maila egoki eta txukunean eskaintzen zaio irakurleari artikulu-sorta osoan.

+ *Sariduna*: Ainhoa Oiartzabal andrea.

+ *Saritutako lana*: Euskaldunon Egunkarian 1998ko abenduaren 16tik 23ra bitartean Ainhoa Oiartzabalek "Europako Batasuna XXI. mendearen atarian" izenburupean argitaraturiko artikulu-sorta.

*** 3.2.- XI Rikardo Arregi Kazetaritza sariko “sari nagusia”**, aurrekoa bezalaxe aho batez erabakitakoa hau ere, eta 1.000.000,- pezetaz hornitutakoa. Ekar dezagun hona oinarriek atal honi buruz hitzez hitz diotena: *1998ko maiatzaren 16tik 1999ko maiatzaren 15era bitartean egunkari eta aldizkarietan edo irrati eta telebistetan euskaraz plazaratu izan diren lanek, hala nola aipatu epe eta komunikabide horietan kazetaritzalanak plazaratu dituztenek daukate saria eskuratzeko aukera. (...) Saria erabakitzeko irizpide nagusiak honako hauek izango dira: kalitatea,*

berrikuntza eta eredugarritasuna (...) Aipatutako irizpideen arabera nabarmendutako artikulua edo erreportaje bakanak nahiz sortak, sekzio bat, irrati edo telebistako erreportaje bat edo erreportaje-sorta bat edo programa bat, kazetari bat, kazetari talde bat... horietarik edozer eta/edo edozein saritu ahal izango du epaimahaiak.

Kazetari-talde bat da sariduna, eta irratiaren uhinetatik goizero-goizero Euskal Herri osora zabaltzen den programa bat da taldearen merezimendua. Gero azalduko ditugu saria erabakitzekeo baliaitu ditugun arrazoiak, baina aurreratu ditzagun saritutako kazetari taldea eta lana zein den, horrela arrazoiak hobeto ulertuko direlakoan.

+ *Sariduna:* 1998ko maiatzaren 16tik 1999ko maiatzaren 15erako tartean "Goizean behin" programako erredakzioan kazetari izan direnak, hots, Manu Etxezortu, Arantxa Iturbe eta Jaime Otamendi, eta hauen gidaritzapean irratsaio horretan kazetari lanetan aritu diren gainerako esatari eta erredaktoreak.

+ *Saritutako lana:* Euskadi Irratian 1998ko maiatzaren 16tik 1999ko maiatzaren 15erako tartean emititu den "Goizean behin" programa.

Saria erabakitzekoan kontuan harturiko faktore ugarien artean ondorengo hauek azpimarratzen ditugu:

- Informazioa ematea, prestakuntzarako elementuak eskaintzea eta entretenimendua: horra kazetaritzak betidanik bereak dituen hiru helburu nagusi. Irratsaio honetan hiru helburu horiek bikain

betetzen dira. Izan ere, kazetari-talde honek lortu baitu informazioa, iritzia eta aisialdia betetzeko elkarrizketa, komentario, lehiaketa eta askotariko jardunak maisuki uztartzea.

- Informazioa, iritzia eta aisialdi-kontuak bata bestearen ondoan txertaturik ditu programak, baina elkarren artean nahasi gabe eta entzulearentzat ongi bereizita.
- Azpimarratzekoa da informazioa eta iritzia zaku berean sartu gabe ematea, azpimarratzekoa den bezala iritzien aniztasuna eta, inguruko zenbait kazetari-lanetan ez bezala, iritzia zarata eta espektakulua eragiteko ez, baizik eta ikuspuntu askotariko hausnarbideak berotasun antzurik gabe entzuleen esku jartzeko tresna moduan erabiltzea.
- Goizero-goizero kalitateari eusteko gaitasuna agerian jarri du kazetari-talde honek. Bizitasuna, jorratutako gaien eta gaiak jorratzeko moduen ugaritasuna, oreka eta tonu egokia: horiek dira, beste zenbaiten artean, kalitate hori gordetzeko kazetariok baliatzen dituzten erremintak.
- Halaber, maila ezberdin eta ugaritako entzuleentzat du interesa. Saioaren zabaltasuna medio, era askotako entzuleek aurkitzen dute berentzat egokia den zerbait baino gehiago zazpietatik hamabietarako tartean.
- Hizkuntzari dagokionez, euskalki guztietako entzuleei eroso zaien euskara erabiltzen da programa honetan. Kazetari-taldeak egiaz lortu du euskalki bateko eta besteko belarriek zailtasun handirik gabe irents eta uler dezaketen hizkera erabiltzea, hizkera estandarra eta egokia alegia.

- Jakina da hori guztia ez dela 1998ko maiatzaren 16aren ondotik sortutako programa. Sustraiak eginak eta errotuak dituen saioa da. Aldaketak ere izan ditu jaio zenetik, eta aldaketak, halaber, 1998ko maiatzaren 16tik aurtengo maiatzerako tartean: kazetari-taldean eta, zehazki, programaren gidaritzan, esatarien artean. Hain zuzen ere horixe bera da saria erabakitzerakoan kontuan hartu den pisuzko beste faktoreetako bat: txanda-pasa egin arren, kalitatea gordetzeko gaitasuna (hau da, Arantxa Iturbe lehen eta Jaime Otamendi uda ondorengo hilabeteetan egon ez arren, beherakadarik ez izana). Egoera ezberdinetara egokitzeko gaitasun hori, zalantzarik gabe, talde lanari zor zaio.
- Eta hori da, hain zuzen ere, ia-ia lehenengo tokian jarri beharreko arrazoa: talde lana. Goizero-goizero, hutsik egin gabe, honelako saio bat egiteko askotariko lanak eta langileak behar dira. Horrela, bada, lehenik eta behin aipatzekoak dira 1998ko maiatzaren 15aren ondotik gidaritzaren pisua eraman duten esatariak: Jaime Otamendi ekainaren 26ra arte, eta irailetik aurrera Manu Etxezortu eta Arantxa Iturbe. Hirurek ongi merezia dute egunero egin duten zuzendaritza eta esatari lan bikainagatiko aitortpena.

Nagusiki horiena da uhinetara bidaltzen den eta, ondorioz, entzuleen belarrietara iristen den ahotsa. Baina horien lanaren atzean eta oinean erredakzio-talde osoa dago. Hauen eguneroko lan isilik gabe oso bestelakoa izango zen Manu Etxezortuk, Arantxa Iturbek eta Jaime Otamendik egindako zuzendaritza-lana eta mikrofono aurrean esatari gisa egindakoa. Horregatik, bada, erredakzio-talde osoari dagokio saria.

Epaimahaiak ez du zalantzarik Euskadi Irratiaren saio hau eredu dela, ez bakarrik euskal kazetaritzarako, baita ingurukoetarako ere. Horrela, bada, sari hau izan bedi Euskadi Irratiarentzako ere ahalbideratu duen lan baten aitoren eta etorkizunerako pizgarri, era eta maila honetako irratsaioei lekua egiten jarrai dezan.

Honaino, bada, *XI Rikardo Arregi Kazetaritza Sariari* dagokion **azken erabakia**. Epaimahaikide guztiok ontzat ematen eta sinatzen dugu gaur, Andoainen, mila bederatziehun eta laurogeita hemeretziko uztailearen hamarrean.

José Antonio Pérez

Miren Azkarate

Allande Boutin

Anjel Lertxundi

Koldo Ordozgoiti

Iñaki Zabaleta

Patxi Baztarrika